

OROZKOKO BOULDERRA ERABILTZEKO ARAUAK

92. artikulua.—Deskribapena.

Boulderrean eskalada praktikatzera bideratutako instalazioak dira.

93. artikulua.—Sarrera

Boulderrera sarrera honela egingo da:

- Boulderreko udal kirol-txartela aurkeztu lehenik.
- Orozkoko Udalak kasu bakoitzerako ezarritako sarreraren

kontzeptuan tasa ordaindu.

- Ikastaroko ikasle dela egiaztatzen duen txartela aurkeztu; ikastaroa amaitzean instalaziotik atera beharko du.

94. artikulua.—Araudi berezia

Boulderra erabiltzeko honakoa izango da kontuan:

- a) Instalazioen ordutegia Polikiroldegia zabalik dagoenean izango da.
- b) Boulderraren erabilpena eta sortu ahal diren ondorioak kirolariaren erantzunkizunekoak bakar bakarrik izango dira. Gomendatzen da eskaladarako federazioaren lizentzia edukitzea.
- c) Ekitaldi garrantzitsuek eta kirol-zerbitzuak programatutako aktibitateak lehentasuna edukiko dute edozein banakako erabilera edo puntualen aurrean. Erabilera horiek premien arabera aldatu ahalgo dira, beti ere behar besteko aurrerapenaz jakinarazita. Ordutegia ezingo da erabili kirol-eskola edo antolatutako ikastaroren batetik bat datorrenean.
- d) Baimendutako klubak eta erakundeak ezarritako ordutegiak errespetatu beharko dute. Ordutegi horretatik kanpo erabiltzen bada, Orozkoko Udaletxeko Kirol Zerbitzuaren baimena eduki beharko du.
- e) Nahitaezkoa da kirolerako egokia dan erropa eta oinetakoak erabiltzea, eskalatzeko oinetakoak edo kalean erabiltzeko ez diren kirol-zapatilak.
- f) Adingabeak erabili ahalgo dute boulderra bakar bakarrik euren aita/ama edo tutoreen baimenarekin eta euren erantzunkizunpean.
 - 14 urtetik beherakoak: baimena aurkeztu beharko dute. Era berean, adineko arduradun batekin joan beharko dira.
 - 14-18 urtera bitartekoak: baimena bakarrik aurkeztu beharko dute.
- g) Behar beharrezkoa da koltxonetak erabiltzea eta gomendatzen da magnesioa hautsean behar dana bakarrik erabiltzea. Boulderraren alderdian 4 eskalatzailer batera ibiltzea baimenduta egongo da.
- h) Debeztatuta dago boulder barrura motxilak sartzea. Polikiroldegiko sarreran dagozan aldageletan itxi beharko dira.

- i) Debekatuta dago boulderreko presak aldatzea. Orozkoko Udaletxeko Kirol Saileko arduradun batek bakarrik aldatu ahalgo ditu eta alde zuzenetik sail honen jakinaren gainean ipinita gero.
- j) Debekatuta dago boulderreko goi aldera sartzea, arriskutsua izateagatik.
- k) Boulderrean itxiteko erabiltzen diren sare eta beste edozein tresna, azken erabiltzaileak kokatu dituztenak, boulderrean jarri behar diren eta itxita geratzen diren.
- l) Erabiltzaileak boulderrean edozein kalte edo apurketa dagoala ikusten badau, instalazioaren zuzendaritzari jakinerazo beharko dio.
- m) Kirol Sailak ez ditu bere ardurapean hartuko instalazioaren erabilpenerako ezarri diren arauak ez errespetatzeagatik sortu daitezkeen istripu edo lesioak.
- n) Erabiltzaile guztiak kirol instalazio hau egoki erabiltzen, zaintzen eta garbi egoteko ahalegin guztiak egingo dute. Araudian ezarritakoa bete beharko da.
- o) Aipaturiko arauak betetzen ez badira, zigor-erregimen bat ezarriko da eta instalaziotik betiko botatzeko posibilitatea agertuko da.